

HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

Kafe Antzokia

INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-06-21

1	Izena	Kafe Antzokia
2	Hizkuntza	Euskara
3	Lan-arloa	Kultura eta aisialdia
4	Kontakturako helbidea edo telefonoa	monasterio@zenbatgara.org 688 80 26 73
5	Sare sozialetako kontaktuak	www.kafeantzokia.eus

PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIBAPENA

1	Praktikaren azalpena	Euskaldunen bilgune, euskal kulturaren plaza eta beste kulturen agertoki izateko sortu zen kulturgunea.
2	Praktikaren azalpenaren laburpena	<p>Kafe Antzokia San Vicente zine aretoa izandako lekuan sortu zen. Erabateko zaharberritzearekin, besteak beste, jesarlekuak kendu eta erabilera anitzeko areto zabala bihurtu zen. Euskararen irakaskuntzan zebiltzan irakasle batzuen gogoetatik abiatu zen proiektua: Bilbon ikasleek ikasgelatik kanpo euskaraz aritzeko aukera falta nabaria zegoela eta ikasketa prozesuan aurrera egiteko beharrezkoa zutela euskaraz aisialdia eta harreman naturalak euskaraz eskainiko zizkieten une eta gune horiek.</p> <p>Bestalde, Bilbon erreferentzia fisikorik gabe sakabanatuta zeuden milaka euskalduni euren hizkuntza naturaltasunez erabiltzeko topagunea eskaintzea zen xedea, bertan euskaldunzahar, euskaldunberri eta ikasleek bat egin eta hizkuntza komunitatea trinkotuko zuen erreferentzia hori eraikitzea. Beraz, asmo horrekin abiatu zen Kafe Antzokia, baina berau autofinantziazioaren bidetik bideragarria</p>

bihurtuko zuen ostalaritza proiektu batek lagunduta. Zentraltasuna bilatuz, Bilboren erdigunean kokatu zen proiektua.

Kafe Antzokian eguneko ordu guztietan egoten da jarduerarik, goizean goizetik hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte.

Aurrekariak

(Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)

4	Helburuak	Euskara eta euskal kultura bultzatzea eta normalizatzen laguntzea
5	Eragin esparru nagusia eta albokoak	Bilboaldea eta Bizkaia
6	Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak	
7	Inplementazio-epea	

INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	Hedapena	30.000 bisitari hilean
9	Inbertsioa (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	
10	Lortutako emaitzak	300 kultura emanaldi urtean
11	Dokumentazioa erreferentziazko materiala	

- 12** **Aurkezpen bideoa**
- 13** **Intereseko informazio
gehigarrik**